

KATALUNIARREN ESKUBIDE ZIBILEN ETA 2017KO URRAIREN 1EKO ERREFERENDUMA

EGITEKO DEFENTSAN KATALUNIAKO HERRI KULTURAREN MANIFESTUA

Kataluniako kultura asoziazionismoa gizatasun, elkartasun eta kataluniartasun eskola da, batez ere. Gizarte oreka eta pluraltasuna bermatzeko oinarritzkoa den giza eta gizarte baloreak, eta herri izaeraren lekuko eta hedatzaile den mugimendua da.

Kultur elkarteak, gizarte kataluniarren asmo eta nahien adierazle ezin hobeak dira; hori dela eta, garrantzi estrategiko handikoak.

Kataluniako hiritarren eta kulturaren arteko batasuna nabarmena da; gure berezitasunaren isla eta herri aparta bihurtu gaituen adierazle argia. Gizarte kultu, moderno, ireki, langile, ekintzaile eta abegikorraren bidetik, askatasun eta autogobernu zabalagoaren bilaketan inoiz etsi ez duen herria da.

Kataluniako kultura asoziazionismoa eskubide eta askatasun zibilen eta autogobernuaren murrizketa jasaten ari den gizartearen zati da.

Kultura asoziazionismoaren Kontseilua Katalunian eremu honetan diharduten erakunde esanguratsuez osatuta dago. Partaidetza, koordinazio eta hauspo lanak egiten ditu kultura asoziazionismoaren sektorearekin eta 500.000 pertsona baino gehiago ordezkatzeko modu zuzenean.

Honegatik guztiagatik, Kontseiluak gogor salatu behar du Estatu espainiarreko botereek legeak urratzen dituztenean, herritarren eskubide zibilekiko mespretxu argia adierazten dutenean eta hiri eta kultura mailako elkarteei, erakundeei eta kataluniar herriaren autogobernuari eraso egiten dietenean.

Kataluniako kultura asoziazionismoak Kataluniako erakundeei eta hauek hartutako erabakiei erabateko babesa adierazi nahi die, eta Estatu espainiarreko Gobernuak, kataluniarrek prozesu demokratikoan askatasunez parte hartzea eragotziz, urriaren 1ean izango den Erreferenduma oztopatzeko egiten ari den ekintzak modu irmoan salatu nahi ditu.

Kontseilua osatzen dugun erakundeok askatasun demokratikoen defentsaren konpromezu irmoa adierazi nahi dugu, eta, era berean, autogobernuari, askatasun zibilen erabilerari -, kontzientzia askatasuna, prentsa askatasuna, adierazpen eta iritzi askatasuna, biltzeko askatasuna, Legearen aurreko berdintasun eskubide zein berme prozesalak eta erabakitzeko eskubidea - mugak jartzearen erabateko kontrakotasuna azpimarratu nahi dugu.

Bartzelonan, 2017ko irailaren 23an

Elkarte sinatzaileak:

Ens de l'Associacionisme Cultural Català
Confederació Sardanista de Catalunya
Moviment Coral Català
Federació d'Ateneus de Catalunya
Coordinadora de Colles Castelleres de Catalunya
Federació Catalana d'Entitats Corals
Federació Catalana de Societats Musicals
Coordinadora de Centres d'Estudis de Parla Catalana
Federació de Grups Amateurs de Teatre de Catalunya
Federació de Diables i Dimonis de Catalunya
Agrupació del Bestiari Festiu i Popular de Catalunya
Federació Catalana d'Entitats Catifaires
Federació Catalana de Pessebristes
Associació Cultural XarxAteneu
Federació de Colles de Falcons de Catalunya
Corals Joves de Catalunya
Federació Catalana de Pueri Cantors
Federació Catalana de Cors de Clavé
Federació Secretariat de Corals Infantils de Catalunya
Associació Agrupament d'Esbarts Dansaires
Associació Coordinadora de Ball de Bastons de Catalunya
Associació Obra del Ballet Popular
Federació Unió de Colles Sardanistes de Catalunya
Agrupació de Colles del Ball de Gitanes del Vallès
Associació Agrupació de Colles de Geganters de Catalunya
Associació Coordinadora de Pessebres Vivents de Catalunya
Coordinadora de Pastorets de Catalunya
Federació Catalana de Cineclubs
Coordinadora de Balls de Diables Tradicionals de Catalunya
Federació Catalana de Joc Tradicional
Agrupació de Penyes i Comissions Taurines de les Terres de l'Ebre
Federació Catalana de Passions